San Silvestre Donostiarra

ARAUDIA

1. Frogaren izena Donostiako San Silvestrea da. Froga 16 urtetik gorako pertsona orori zabalduta dago, edozein dela bere kategoria, sexua edo nazionalitatea. Ez da beharrezkoa atleta federatua izatea.
2. Lasterketa asfalto gainekoa izango da, Donostian zeharreko hiri-ibilbide batean.
3. 12€ko izen-emate bakarra izango da. Probaren egunean ezin izango da izena eman eta ez da dirurik bueltatuko izen-ematea egin eta gero. Abenduaren 29tik aurrera inskripzioak, 17€.
4. Dortsala jasotzeko abenduaren 29 eta 30ean goizeko 11tatik atsaldeko 20tara Amarako frontoian.
5. KATEGORIAK: Sexu bakoitzeko, kategoria bakarra egongo da:

    - **Gizonezko Seniorra**
    - **Emakume Seniorra**

6. **Nahitaezkoa izango da dortsala ematea, bai eta probaren kamiseta ere. Antolakuntzaren esku geratuko da dagokien kamiseta eta dortsala modu egokian bistaratuta ez duten pertsonak kanporatzeko eskubidea.**
7. SUPER AMARAk eskainitako "gabonetako oparitxo" bat izango dute lehen hiru sailkatuek, eta lehen 5 sailkatuei SUPER AMARAren edozein establezimendutan erabiltzeko txertelak emango zaizkie. **Sariak eskuratu ahal izateko, ezinbestekoa izango da antolakuntzak emandako kamiseta eta dortsala jantzita lehiatzea.**

    1. Txapela, gabonetako oparia eta 400€ko txartela Super Amaran erosketak egiteko.
    2. Gabonetako oparia eta 250€ko txartela Super Amaran erosketak egiteko.
    3. Gabonetako oparia eta 150€ko txartela Super Amaran erosketak egiteko.
    4. 100€ko txartela Super Amaran erosketak egiteko.
    5. 50€ko txartela Super Amaran erosketak egiteko.

    Mozorrotuta parte hartzen dutenen artean, Gabonetako saski handi baten opari berezia emango da. Saria lasterketa amaitzean emango da.

8. Lasterketaren kontrola Amara Kirol Elkarteko boluntarioek egingo dute.

San Silvestre Donostiarra

GARA super amara Coca-Cola lacturale

9. Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei gomendatzen die osasun-azterketa bat egin dezatela lasterketaren aurretik, eta parte-hartzaileak bere gain hartzen du kirol-jarduera honek ekar diezaiokeen edozein arrisku.
10. Antolakuntzak ez du bere gain hartzen inolako erantzukizunik proba honetan parte hartzean pertsonak jasan ditzakeen kalte, galera edo lesioengatik, ez hark beste bati sortutakoengatik, ez eta hirugarren batek parte-hartzaileari eragindakoengatik ere.
11. Antolakuntzak ez du bere gain hartzen galdu/lapurtu litezkeen objektuen erantzukizunik. Horregatik, motxilan baliozko gauzarik ez uztea gomendatzen da.
12. Parte-hartzaile guztiek, proban parte hartzeagatik, KIROL-ASEGURU BATEN ESTALDURA izango dute.
13. Parte-hartzaile guztiek, proban parte hartzeagatik, honako Arautegi hau onartzen dute. Arautegi honetan zehazten ez den guztia G.A.F.-en Arautegian ezarritakoaren arabera ebatziko da.
14. Izena ematean baimena ematen zaie antolatzaileei lasterketaren edozein argazki, filmazio, grabaketa edo bestelako edozein irudi erabiltzeko, trukean ordain ekonomikoaren ezein eskubide izan gabe.
15. **Gogora ekarri behar da lasterketak jai kutsua duela eta lehia bigarren mailan gelditzen dela.**

GARA super amara Coca-Cola SIENTE EL SABOR lacturale